

IRAKASKUNTZA-GIDA

2015/16

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25934 - Gizarte Proiektuen Diseinua eta Ebaluazioa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau Gizarte Langintzaren Oinarriak, Metodologiak, Teoriak eta Teknikak deritzon A Moduloaren parte da. Gizarte proiektuen diseinu eta ebaluazioan oinarritzen da, gizarte esku-hartzearen planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesu orokorraren ulermenatik. Horretarako, planifikazioaren maila ezberdinak landuko dira: plana, programa eta proiektua, zehazki azken honetan zentratuz planifikazioaren unitate operatiboena den heinean. Irakasgaiak ikuspegi teoriko-praktikoa hartzen du, Gizarte Langintzaren tresna den gizarte proiektuak barneratu behar dituen eduki ezberdinak ezagutuz eta garatuz.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiak modulo honako konpetentziari erantzuten dio: Esku-hartze planen, programen eta proiektuen diseinua, kudeaketa eta ebaluazioa. Era berean, honako modulo irakaskuntza emaitzarekin lotuta dago: Gizarte Langintzaren metodología eta tektinak ezagutu eta aplikatzen ditu banakako, familia, talde, komunitate eta erakundeekin, esku-hartze proiektuak diseinatuz eta ebaluatuz.

Horrekin batera, irakasgaiaren konpetentzia zehatzak hurrengoak dira:

- Gizarte proiektuen printzipio, irizpide eta faseak ezagutzea.
- Gizarte proiektu mota ezberdinak antzematea.
- Gizarte proiektuen formulazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesua eta eginkizun honetan gizarte langileen funtzioa ezagutzea.
- Gizarte esku-hartze proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

ANECAk baieztatutako titulazioaren memorian zehazten denari jarraituz, irakasgaiak honako eduki teoriko-praktikoak lantzen ditu:

1. Planifikazioa

- Planifikazioaren aspektu orokorrak: printzipioak, irizpideak, motak eta prozesura
- Planifikazioa gizarte langintzan
- Planifikazio mailak: plana, programa eta proiektua

2. Gizarte proiektuen diseinua

- Izaera
- Fundamentazioa
- Helburuak
- Hartzaileak
- Ekintzak eta metodologia
- Kokapena
- Egutegia
- Balibide pertsonalak, materialak eta teknikoak
- Aurrekontua
- Ebaluazioa
- Eranskinak (diseinaturiko edota aplikatutako diagnosi eta ebaluazio tresnak)

3. Gizarte proiektuen ebaluazioaren diseinua

- Ebaluazioaren definizioa, helburuak eta ezaugarriak
- Ebaluazioaren edukiak
- Ebaluazio motak
- Ebaluazioaren arduradunak
- Ebaluaziorako teknikak

4. Azken txostenaren idazketa

Irakasgaiak zeharka lantzen ditu genero ikuspegia, gizarte eskubide ikuspegia, gizarte eta ingurugiro sostengarritasuna eta parte-hartzea, gizarte proiektuen formulazioaren berezko edukiak diren heinean.

METODOLOGIA

Irakasgaiak metodologia aktiboa hartzen du proiektuen bidezko irakaskuntzan oinarrituta, gizarte proiektu baten garapenean hain zuzen ere. Horrela, ikaslegoaren lan autonomia bultzatzen da eta irakasgaiaren kompetentziak.

Era berean, posiblea den heinean irakaskuntza-zerbitzua sustatuko da, hau da, erakunde edo gizarte talde zehatz baten eskaerari erantzuten dion gizarte proiektuaren diseinua.

Irakaskuntza ekintzak honakoak dira:

- Azalpen teorikoak.
- Derrigorrezko irakurgaien banakako eta talde osoko lanketak.
- Gizarte proiektu eredu ezberdinen taldekako eta talde osoko adibideen azterketa.
- Gizarte proiektuak burutzeko diru-laguntza publikoak lortzeko formulazio ereduaren taldekako eta talde osoko adibideen azterketa.
- Abian jarritako proiektuen esperientzien inguruko kanpoko agenteen hitzaldiak.
- Planifikazio eta kudeaketa tresna ezberdinen aplikazioa: marku logikoa, arazoan zuhaitza, Gantt-en diagrama, aurrekontu taulak.
- Gizarte proiektuaren atal bakoitzeko ariketa praktikoak.
- Diseinatutako gizarte proiektuen taldekako aurkezpenak.

Irakaskuntza ekintza horien garapen egoki baterako, beharrezkoa izango da irakaslegoak alde aurretik irakasgaiaren oinarriko bibliografian agertzen den materialaren kasuan kasuko derrigorrezko irakurketa egitea.

Gelako praktikei astero ordu bat dagokie. Praktika hauek progresiboki barneratzen joan diren ezagutza teoriko-praktikoak aplikatzeko balioko dute. Zehazki, irakaslegoak taldeka (5 pertsonetakoak) proiektu baten diseinua egingo du, irakaslearen partetik irakaskuntza feed-back-a eta ebaluazio jarraia jasoz.

Irakaslegoak tutoretzak izango ditu ere zalantzak argitzeko eta proiektuen aspektu metodologikoak berrikusteko.

Derrigorrezko irakurketa materiala E-Gela espazio birtualean egongo da eskuragarri.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda:

M: Maistrala
GCL: P. klinikoak

S: Mintegia
TA: Tailerra

GA: Gelako p.
TI: Tailer Ind.

GL: Laborategiko p.
GO: Ordenagailuko p.
GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ahozko defentsa % 20
- Talde lanak (arazoan ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 80

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA

Irakasgaia honek duen ebaluazio sistema jarraia da. Ikaslegoak 5 pertsonetako taldeetan diseinatu behar izango duen atalez-ataleko eta zehaztutako epeetan entregatze, zuzenketa eta deboluzioaren bidez egingo da ebaluazioa. Sistema jarraia honek ikaslegoaren talde lana errazteaz gain, gelako praktiketan proiektuaren formulazio prozesuaren segimendua eta akonpainamendua ahalbidetzen du, baita taldearen eta irakaslearen partetik feed-back-a ere.

Horretaz gain, ikaslegoak taldeka diseinatzen duten gizarte proiektuaren ahozko defentsa egin behar izango dute. Horretarako 15 minutuko aurkezpena burutu eta ondoren proiektuari buruz eta honek irakasgaiarekin duen loturari buruz plazaratzen diren galderei erantzun beharko die. Aurkezpenarako informazio eta komunikazio teknologien erabilera eskatzen da (power point, prezzi, poster zientifiko, etab.).

Gizarte proiektua paperean entregatuko da eta adostutako formato eta estilo irizpideak jarraituko ditu, baita ortografia eta zitazio (APA) arauak ere. Proiektua entregatzeko azken epea azterketa ofizialaren data izango den bitartean, horren

ahozko defentsa irakasleak ezarritako datan egingo da eskoletako azken bi edo hiru asteetan.

Taldekide bakoitzak talde osoak lortzen duen kalifikazioa ez den bestelako kalifikazioa izan dezake bi irizpideren arabera: lehenik, taldekideen eginiko ko-ebaluazioa talde lanean norberak izandako partaidetza, inplikazioa eta ekarpenaz, bigarrenik, bere parte-hartze erakusketan, eta hirugarrenik, irakaslearen behaketa irakasgaiaren zehar. Modu honetan, konpetentzien garapen indibiduala ere ebaluatu ahal izango da.

Bikain kalifikazioa lortu duten gizarte proiektuen kasuan, horien diseinu prozesua ezagutu eta horretan parte-hartu duten, edota gauzatzearen bideragarritasuna aztertzeke interesa azaltzen duten entitate eta gizarte erakundeen aurrean aurkeztea sustatuko da.

KALIFIKAZIO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

Gizarte proiektuaren diseinua: %80

Baloratuko da:

- Gizarte proiektu baten atal guztien barneratze eta garapena
- Edukinen deskripzio eta zehaztapena
- Proiektu osoaren koherentzia eta bideragarritasun teknikoa
- Ebaluazioa eta horren adierazleen diseinua eta egokitasuna

Gizarte proiektuaren ahozko defentsa: %20

Baloratuko da:

- Aurkezpenaren argitasuna eta koherentzia
- Sintesirako eta edukin nagusiak priorizatzeko ahalmena
- Erabilitako lengoaiaren egokitasuna
- Ezarritako aurkezpen denborari egokitzea.

AMAIERAKO EBALUAZIOA ESKATZEKO PROZEDURA

Zehaztu den moduan, irakasgaiak ebaluazio jarraia modalitatea hartuko dut.

Azken ebaluazioaren sistema eskatzeko prozedura: Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. Jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako “Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua” dela medio (ikus web gunea).

Amaierako ebaluazio sisteman parte hartzen duen ikaslegoak konpetentzia berdinak akreditatu behar izango dituen, azken froga gizarte proiektu baten diseinua eta horren ahozko defentsa egitean datza, azterketa data ofizialean. Froga bi hauek %80 eta %20eko ehuneko kalifikazioa izango dute hurrenez hurren, eta aurrerago azaldu diren balorazio irizpide berdinak aplikatuko zaizkie.

DEIALDIARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Hala ebaluazio jarraian nola amaierakoan, proiektu soziala proba aurkezten ez denean, deialdiari uko egiteko errenuntzia idatzi bat aurkeztu beharko zaio irakasleari, azterketa epea hasi baino 10 egun lehenago behintzat:

Idatzia aurkezten bada, kalifikazioa: EZ AURKEZTUA 

Idatzia ez bada aurkezten, kalifikazioa: SUSPENTSO

Froga hauetariko bat aurkezten ez duen ikaslegoaren espedientean Ez aurkeztua agertuko zaio, aurkeztuan eta gainditua duen frogaren kalifikazioa gorde ahal izango zaiolarik baina soilik kurtso berdineko ez ohiko deialdirako.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez ohiko deialdian jarraitutako ebaluazio sistema ohiko deialdirako zehaztutako berdina izango da.

Ez ohiko deialdiari uko egiteko nahikoa izango da bertara ez aurkeztearekin.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren ikasmaterialik ez da egongo. Hala ere, ondoren azaltzen den bibliografía ataleko oinarriko bibliografía irakurtzea derrigorrezkoa izango da.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Oinarrizko bibliografia

1. Planifikazioa

BERNAZZA, Claudia (2006): "La relación entre política, planificación y gobierno", eskuragarri: <http://www.claudiabernazza.com.ar>

FERRÁN ZUBILLAGA, Ane (2008): "Técnicas de planificación y gestión", in GUINOT, Cinta: Métodos, técnicas y documentos utilizados en Trabajo Social. Colección temas de Trabajo Social. Bilbao, Deusto Unibertsitatea.

GAIRÍN SALLÁN, Joaquín (1997): "Elementos de planificación", in FERNÁNDEZ ARENAZ, Adalberto eta Joaquín GAIRÍN SALLÁN: Planificación y gestión de instituciones de formación, Bartzelona, Praxis, 155-160.

OBERAXE (2009): Guía para el diseño y elaboración de planes locales de sensibilización. Madril, Ministerio de Trabajo e Inmigración.

2. Gizarte proiektuen diseinua

ANDER-EGG (2000): "Pautas orientaciones para elaborar un diagnóstico comunitario", in Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad, Ed. Lumen, Buenos Aires. (7. Kapitulua).

CARRION, Iñigo eta Iosune BERASATEGI (2010): Proiektuak lantzeko gida, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutoa, Eusko Jaularitza, Gasteiz.

CRE (2010): Manual de planificación de proyectos sociales. Madril, Cruz Roja Española.

GARCÍA HERRERO, Gustavo eta RAMÍREZ NAVARRO, José Manuel (2006): Manual práctico para elaborar proyectos sociales. Madril, Siglo XXI.

PÉREZ DE SAN ROMÁN, Nahia eta Oskar FERNÁNDEZ (d/g): Egingo dugu proiektu bat? Hasieratik bukaerara, zer izan behar duzun gogoan, ERDU Argitalpenak, 2. Zbk, Gasteiz.

RAYA DíEZ, Esther (koord.) (2011): Herramientas para el diseño de proyectos sociales, Errioxako Unibertsitatea.

SABALZA, Michel (2000): "Enfoque del marco lógico", in Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo. Instituto Hegoa (UPV/EHU), eskuragarri: <http://dicc.hegoa.ehu.es>

SOLABARRIA, Enara: "Cómo hacer proyectos",. Manuales de gestión. Bilbao, Bolunta.

3. Gizarte proiektuen ebaluazioaren diseinua

HANNACH, Andrés (1994): Manual para proyectos. Por qué y cómo utilizar indicadores de género. Santiago de Chile, Servicio Nacional de La mujer y Agencia Canadiense de Desarrollo Internacional.

PÉREZ ARIAS, Oscar (koord.) (2010): Guía de Evaluación de Programas y Proyectos Sociales. Plataforma de ONG de Acción Social, Madril.

MASA, Marce (2008): "Criterios de valor en el diseño de proyectos", in RAYA DIEZ, Esther (coord.): Herramientas para el diseño de proyectos sociales. Logroño, Universidad de La Rioja, 49-58.

SAENZ, Marta eta CAERO, Concha (2008): "Análisis de caso de evaluación de proyectos: La experiencia de la Red de Talleres de Aprendizaje y la Participación de las personas en los proyectos", in RAYA DIEZ, Esther (koord.): Herramientas para el diseño de proyectos sociales. Logroño, Errioxako Unibertsitatea, 155-162.

Gehiago sakontzeko bibliografia

1. Planifikazioa

AGUILAR María eta ANDER-EGG, Ezequiel (1999): Diagnóstico social. Madril, Instituto de CCSS Aplicadas.

COLECTIVO IOÉ (2003): Investigación Acción Participativa: Propuesta para un ejercicio activo de la ciudadanía.

LÓPEZ PELAEZ (ed.) (2010): Técnicas de diagnóstico, intervención y evaluación social. Madril, Universitat. UNED.

MARCHIONI, Marco (2007): Planificación social y organización de la comunidad alternativas avanzadas a la crisis (7ª ed.). Madril, Popular.

2. Gizarte proiektuen diseinua

ANDER-EGG, Ezequiel (2000): “Pautas y orientaciones para elaborar un diagnóstico comunitario”. Capítulo 7. Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad. Buenos Aires, Lumen, 219-233.

BUSTOS, Cristina eta MICHAEL, Norma (1995): Guía para la gestión de proyectos. Bartzelona, Paidós.

PÉREZ SERRANO, Gloria (1994): Elaboración de proyectos sociales. Casos prácticos. Madril, Narcea.

3. Gizarte proiektuen ebaluazioaren diseinua

BUSTELO, María: Criterios de evaluación: Evaluación de necesidades, diseño, resultados e impacto. Madrid, Iniciativas culturales.

CABRERA F. (2005): La evaluación participativa: concepto y fases de desarrollo. Madril, Cáritas.

CRUZ ROJA (2000): Manual de planificación de proyectos sociales, Madril.

FERNÁNDEZ-BALLESTEROS, Rocío (1996): Evaluación de programas. Una guía práctica en ámbitos sociales, educativos y de salud. Madrid, Síntesis Psicología.

INCYDE: La sistematización: cómo aprender de nuestras propias prácticas. Bilbao.

RED CONSULTORÍA SOCIAL (2010): Guía para la gestión con indicadores en acción social. Madrid, Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, 71-77.

SHAW, I. (2003): La evaluación cualitativa, Bartzelona, Paidós.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

ARABAKO GIZARTE ZERBITZUEN BEHATOKIA:
<http://www.arabakobehatokia.net/es/datos-estadisticos.php?t=2>

GIZARTE EKINTZARAKO GKE-en PLATAFORMA:
<http://www.plataformaong.org/>

CIMAS SAREA:
<http://www.redcimas.org/biblioteca/videoteca/>

INDICADORES SOCIALES:
<http://www.indicadoresociales.org/Menu74.aspx>

OHARRAK